

LUMA BERRIEN AZTARNAK

Joxe Aldasoro Jauregi

Etxarri Aranatz (1974). Haur
Hezkuntzako irakaslea.



Ilustrazioa: **Cristina Fernandez**

Kaguendios! Atzera, ostia!». Piztiak ez diote, ezin diote nagusiari jaramonik egin. Lepoan lotutako kateetatik tira egiten dute, euren burua itotzeraino ia. Lerdea darie, mutur aurrean aurkitu duten gorpua txikitzeke, xehatzeko amorruz.

Sena.

Katiuskak lokaztutako larrean iltzaturik, ehun kilotik gorako gizasemeak txotxongilo traza du. Nekez mantentzen du oreka. Esku eta besaurreetan bilduriko kate-kolpeek piztiak atzeko hanka motzagoen gainean zutik jartzera behar-tzen dituzte.

Gizonak ez du nekerik nabaritzen. Emozioek, amorruak, zehazki, gorrotoak ere bai, ez diote sentiarazten uzten. Hor-txe dauka etsaia, hilda. Bukatu dira buruhaustea, beldur-rak, bizi-ezinak. Sinetsi ezinik. Bukatu dira tentsioak, zain-tzak, erasoak, ehizaldiak, alertak, korrikaldiak, peskizak. Eta hala ere, negarrez ari da. Malko garratzak, minak, korrosi-boak, herdoilduak.

–Nahi izan dunan bezala bizi izan haiz, eta hil ere halaxe!

Halaxe baitago otsema: lau hankak gorpura bilduta, itsa-tsita, baita lepoa eta burua ere. Begiak itxita. Ez dago ten-tsiarik, indar arrastorik, sumin edo bortizkeria izpirik aur-pegiko espresioan. Irudi luke baietz, animaliak berak, herioren hurbiltasuna sumatuta edo bizitzeaz nekatuta, auskalo, aukeratu egin duela hiltzeko lekua, lohia apenas zulatu duten oin markek ibilera arina erakusten baitute, askoz urrunago joateko ahalmena.

Sena.

Animalia madarikatua. Txikitan, beldurra, amonari en-tzundakoengatik: odolusturik agerturiko behorrena, or-beletara joanda desagertu zen neskarena; ardiak bilatzera eta inoiz itzuli ez ziren bi anaïena. Guztietan terribleana dozena bat txakur lehertuta eta hiru gazteren hilotzekin bukatu zen uxaldiarena.

Gaztetan gorrotoa, “Moro”-ri egindakoarengatik.

Ikasteko gogo edo inteligentziarik ez, eta gurasoek osa-baren bordara morroi bidali zuten otsoa mendian zebilela zabaldu zen uda hartan. «Otsoa», esan zuten; beti esaten zuten «otsoa agertu da». Otsoak, sekula, taldean eta taldeari esker bizi zen animalia gaizto gorenarekin, infernuko txe-rrenarekin parekatu nahian edo.

Leihoak estali, ateak konpondu, piketeak prestatu eta sartu, alanbreak lotu. Lan nekagarriak, aspergarriak. Eskuak babaz beteta, mailukakoak noiznahi, harramazkak hanka eta besoetan, aginduak, errietak, presak. Neka barra-barra eginda oheratzen ziren izararik gabeko koltxoian. Osaba posta eskopetari lotuta.

“Moro”, bere pisua aise gainditzten zuen artzanora zuen jolas lagun bakarra. Noblea, azkarra, handia bezain arina,

zuhurra bezain indartsua. Malkor baten azpian lehertuta, erraiak kanpoan, aurkitu zuen osabak. Itxuraz, otsoak pres-taturiko segadan eroria.

Osaba konbentzitu zuen artaldearen babesa bere esku uzteko. Gogoz bilatu ondoren, espero zuena aurkitu zuen: broguiña, errifle semiautomatikoak, mirarekin, «zazpiehun metroan edozein izakiri muinak barratuko dizkiok, begi ona badaukak, noski!», saltzaileak.

Baita espero ez zuena ere: piztiak, lau. Orban beltzak azal arrean. Atezko hanka motzagoekin deformea ziruditenak. Txakur errabiadun aurpegia. Kirasdunak. Asaldagarriena, gizaki itxura ematen zien irribarrearen eta intziraren ar-teko nahasketa, bihotza geldiarazi eta arima urratzen zuena.

Laukotearekin zebilenean, zapaltzen zuen lur zati oren jabe sentitzen zen. Seguru, basoa zeharkatzen zuenean ze-poak zapaltzen, lakioak jartzen, pozoitutako haragia ba-rreiatzen. Justizia ezartzaile odol, ile eta oin arrastoei ja-rraitzen zienean.

Den-dena alferrik. Otsoak, eraso eta ihes. Jo berriz, eta hanka. Urteetan.

Denborarekin, osabaren ofizioa afizio bihurtuta, artalde urritua mantentzea animalia madarikatua jazartzeko ai-tzakia besterik ez zen. Ardiak otsoak ez, kaleak jan baitzi-tuen. Kaleak bai, bizimodu erosoak, porlan erraldoiak, di-ruaren hotsak, galipot sugeak.

Gaur, hilda agertu da bordatik berrogei metro eskasetara. Hortxe datza putakumea, gorpua. Eta bera, piztia arraioei ezin eutsi.

Haize eta euri kolpeak oreka galarazita, lurrera erori da. Piztiak, otsemeari lotu zaizkio, haginka. Errifleak airera bo-tatako lehenengo tiroarekin, ihesari eman diote. Ondoren, bost balazo bota dizkio gorpuari. Irabazlearen ohorea, berea. Bost zuloek garailea eta galtzailea bereiziko dituzte. Bordako sarreran jarriko du gorpua erakusgai.

Arrastaka darama otsema, hanketatik lotuta, nekez. Ezin indarririk egin, oinak irristatzen zaizkio, putzuetan hondo-ratu. Indar kolpe batez bizpahiru urrats egiten ditu, besterik ez. Sokak eskuak erre dizkio. Arnasa hartu. Beste kolpe bat eta irrist eginda lurrera erori. «Kaguendios! Otso puta!».

Bordara iritsi denean, soka askatu du. Ataria irekitakoan, sarraskia. Ardi eta arkumeak lur-rean barreiatuta, hilda ba-tzuk, intzirika besteak. Odol arrastoak ganbeletan. Hesteak, gibelak, biriak... lurruna botatzen. Erauzitako gorputz ada-rrak dardarka. Lasto, gorotz eta odol kiratsa, okagarria.

Haragia triskatzen diharduten piztiak, jabea sumatuta, burua altxatu, begiratu eta eraso egin diote. Erreakziona-tzeko betarik gabe, txikitu, xahutu, zukutu egin dute.

Sena.

Noizbait ase dira. Ez luzerako ordea.